



BARREN

TOKIKOM

Magia ilusio

Niala magoa



Dolores Zubiaurre Azpiazu

2022ko urtarrilaren 24an hil zen, 87 urte zituela.

*Duela 87 urte izan zinan pozik handiena
Leiarre baserrixan, Astigarribixan.*

*Beti neska fin eta lotsati,
zein erromeixan, zein plazan.*

*Zure bizitzako maitasuna topatu zenduan
Joxe Mari leiala, lan eta lan.*

*Ordutik zintzo-zintzo familiagatik
dena dozue eman.*

*Berriz zerate elkartu zeruan,
noizbait besarkatuko gera bertan.*

Etxekoak



Edurne Zabaleta Ojanguren

2022ko urtarrilaren 24an hil zen, 95 urte zituela.

Amama gure albotik joan zara, baina beti eramango zaitugu gure bihotzean.

Etxekoak

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Sebas Elizburu Kortaberria

"Txato"

2022ko urtarrilaren 30ean hil zen, 65 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



Alipio Alonso Ruiz

2022ko urtarrilaren 29an hil zen, 74 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Zure indarra eta adorea
gogoan dugun bitartean,
beti izango zara
gure artean.*

Etxekoak





SARA IRIONDO OTAÑO

Gizarte hezitzailea

Sena

edo atzera beittu, berdiñ. Bakoitza nun jabiñan ere ez gendunan somatzen. Batetik, sasi arteko zaratia eta karraskia. Bestetik, piñuan krakadia eta erreka. Halako baten aldamenekuari ahopian berbetan entzun najaonan, "Nun zaude, ama?". Bilddurak akabatzen jaonan eta derrepentian hanka jokua atara jonan. Nora? Guk ez genkiñan eta berak ere ez. Ihesika eiñ nahi, baiña nora jakiñ ez. Bestiok dihar eiñ giñonan, "geldittu hari, geldittu hari!". Arrastorik ere ez geunkanan, harutz edo honutz jun zunan. Danok juntau giñanian batek esan jonan astebete le-

nago ama hill jakola. Batzueri hasarria piztu jakonen, beste batzueri tristuria. Ez giñunan alkarrekin entenditzen. Segittuan gutako batek altuan esan jonan: - Ni hamen gerauko non panderua jutzen eta danok hamen bildu arte etxonat soltauko!

- Ni hirekin gerauko non kantuan.
- Ni honen billa jungo non, bidian aurrera!
- Hi, hurrengo pausua eman aurretik musikia nundik datorren jakitzia komeni jan!
- Bai, hi.
- Nik bidian atzera eingo jonat.
- Nik ere bai.
- ...

Askok ez zebela ulertzen esaten jienan. "Ze nezesidade daukazue gabaz, danok alkarrekin, tontorrera igotzeko?". Nik erantzuten najaonen, nik ere ez naixala esplikatzan zergatik sortzen jakun guri bizirik irauteko sena indartzeko horrenbesteko biharra.

*"Makil kolpe eta
irrintzi artian
hasi gendunan
lehenengo aldiz bidia"*

Iberri bakoitzeko illuntzian igotzen giñunan tontorrera. Ez jakunan inporta eguraldi gogorra. 30 bat andra alkartzen giñunan Plaza Haundixan. Aurretik berba eginda gendunan bata bestian aldamenian eingo genduala bidia eta ez gendunan gauza haundirik eruaten. Inportantienak, ura eta makillia.

"Karakate aldera abantau biharko gaittun, ala?" bota jonan batek eta "Beinke!", makil kolpe eta irrintzi artian hasi gendunan lehenengo aldiz bidia. Basuan sartu giñanian baiña, aldatu eiñ zunan girua. Lanbrua jaonan eta ez zunan ikusten ezer ere. Aurrera beittu



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Sustolizatearen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izogirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

▶ OTSAILAREN 6AN MANIFESTAZIOA ERMUATIK EITZAGARA

2020ko otsailaren 6an Zaldibarko zaborte giko hondamendia gertatu zela bi urte beteko dira. Testuinguru horretan, Zaldibar Argitu herri mugimenduak eta 2022ko Aldaketaldia Asanbladak antolatuta, otsailaren 6an (igandea) Ermuako plazatik Eitzagara (Zaldibar) manifestazioa egingo da, 12:00etan hasita. Hona hemen aldarrikapenak: udal autonomia eta herritarren ahalduntzeari bai, aire garbia eta Natura bizigarriari bai, desazkunde justurako txoke planari bai, ekitateari bai, Tapia legea eta UGEPS-ari ez, kutsadurari ez, megaproiektuei ez, desberdinketa soziala areagotzeari ez...

Animatu! Guztion osasunak eta ingurumenak eskertuko digute.

A.I.Z.

▶ DEBABARRENEKO PONENTZIA

Urtarrilaren 7an Eusko Legebiltzarra aho batez onartu zuen ponentzia edo lan taldea eratzea gure eskualdearen egoera sozioekonomikoa suspertuko lukeen plan estrategiko bat diseinatzeko. Horretarako, Debabarreneko premien inguruko hausnarketa sustatzeko, tartean dauden erakundeek ekarpenak, besteak beste Udalenak, jasotzen ari dira. Horren harira, urtarrilaren 21ean Udala osatzen dugun alderdi guztien bilera bat egiteko proposamena luzatu genien, guztion artean gure herrirako izan ditzakegun asmoak eta proiektuak partekatuzeko,

pentzatzeko baikenuen "denon artean adostutako asmo batzuk eramateko" aukera izango genuela. Gainerako Udal taldeek ez dute beharrezkotzat jo gonbidapenari erantzutea, baina urtarrilaren 28an jaso genuen alkatearen erantzuna, gure gonbiteari uko eginez, honako argudio hauek erabiliz, hitzez hitz: "Eskera Udal bezala egiteko berandu da", "Elgoibarko egoeraren inguruko datuak eta proposamenak eman ditugu iada", "alderdi bakoitzak bere txosten eta proposamenak egin beharko ditu, beraz, badugu denbora norberak bere ekarpenak egiteko".

Zaila dela uste dugu EAjk Elgoibarko Udalean, PSE-EEren laguntzarekin, defendatutako kudeaketa eredua hain hitz gutxitan hobeto adieraztea: Alkateak Elgoibarren izenean hitz egin du Legebiltzarreko ponentzian, baina beste inorekin kontatu gabe. Esandakoaren berri medioen bitartez izan dugu. EAjk ez du inoiz herri planteamendu partekatu batekin joateko beharrik sentitu, berriro ere, erakundeek ikuspegi patrimonialista dutela erakutsiz. Erantzunak argi uzten du non ditzuten lehenetsiak, alderdiaren interesak herriaren interesen aurretik jartzen baituzte. Bestalde, nahastu ez gaitzen, biltzeko gure proposamena ez zen ponentziaren dinamikan parte hartu ahal izateko baimen-eskaera bat. Badakigu zer tresna ditugun, eta horiek erabiltzeko borondatea argia da. Gure eskualdean eta herrietan garatu beharreko hainbat proiektu bilduko dituen plan estrategiko

bat diseinatu behar denean, gure proposamenaren helburua da garatu beharreko proiektuak hautatzeko orduan gure herriaren posizionamendu ona guztion artean bermatzea.

Erakunde patrimonializatzea, alderdi herriaren aurretik jartzea, kudeaketa pertsonalista, informazio eza... Sentitzen dugu, hitz gogorak dira, baina zuzenak, Udalean bizi dugun errealitatea deskribatzeko.


Elgoibarko EH Bildu

▶ ESKERRIK ASKO!

Aurrez aurre ere eman dizkizuegu, baina BARRENEK eskaintzen digun aukera hau aprobetxatu nahi dugu San Lazaro egoitzako langileoi eskerrak emateko. Ramon ondo baino hobeto zaindu duzue hor eman dituen urteetan, eta hori bihotzez eskertu nahi dizuegu. Zuek ere badakizue Ramon oso gustura egon dela egoitzan, eta hori zuei esker izan da. Zuen jardun profesional eta humanari esker, alegia. Ez duzue beti lan-baldintzarik onenetan jarduten, baina, hala ere, zuen onena eskaintzen diezue gure adinekoei. Eta beste horrenbeste egiten duzue egoiliarren etxeokoen ere: nahi beste informazio emanaz, etengabeko hartu-emanean, tratu zintzoa eta zuzena eskainiz ... Eskerrik asko, benetan.

Ramonek agur esan digu baina orain bere arreba Mari geratu da zuekin. Mari ere ezin gusturago dago San Lazaron dagoenetik.

Ramon Larrañagaren etxeokak



Roberto Agirregomezkorta Oregi

2022ko urtarrilaren 31n hil zen, 72 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.





Zuen keak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus  943 744 112  688 634 044



Garaje aurrea zikinkeriaz beteta lagatzen digute: "Juan Mugertza kalean, Pista Beltzean, daukagu garajea eta askotan aurkitzen dugu garajeko ataria zikinkeriaz beteta. Batzuetan, barrura ere sartzen da zikinkeria, eta beneran nazka ematen du inguruneak. Errespetua eskatzen dugu, eta mesedez zaborra zakarrontzira botatzeko".



Skate parkeko lanak amaitu gabe utzi dituzte: "Skate parke berria egin dute, baina ingurunea errematatzeari falta dela iruditzen zait. Hasiberrientzako edo patinetearrekin eskarmentu askorik ez dutenez gune berria prestatu dute, baina patinatzen hasterakoan patineteari kokatzeko lekurik ere ez dute ia. Parkearen buelta guztian lurra dago eta uste dut hori txukuntzea falta zaiela".



Eskerrik asko Jausoroko etxeen atzeko bidea garbitzeagatik: "Gure etxeen atzeko kalea zikin-zikin zegoen, eta azkenean garbitu dute. Aurrerantzean eskertuko genuke garbitzaileak maiztasun handiagoarekin pasatzea, espaloia garbi mantentzeko".

IV. URTEURRENA

Jose Miguel Azkoitia Artetxe

2018ko otsailaren 6an hil zen, 57 urte zituela. Haren oroimenez IV. urteurreneko meza izango da, domekan, otsailaren 6an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi aldezturik eskerrak.

**Gauz zeruari
begiratzen zain gaituzu:
zu han, gu hemen.**

Zure familia



Juanjo Martinez zirujauak zalantzan jarri zituen pandemiari aurre egiteko neurriak



Juan den zapatuan, Irtzargailua elkarteak antolatuta Juanjo Martinez zirujauaren hitzaldia izan zen Maalan. Hizlariak esan zuen gaixotasuna egon badagoela onartu arren, ez dela sakonean ikertu. Bestalde, pandemiari aurre egiteko orain arte hartutako neurri nagusien inguruan dituen zalantzei buruz hitz egin zuen: konfinamendua, PCRak, musukoen erabilera, txertoa...

Martxoko konfinamendua akatsa izan zela adierazi zuen: "persona osasuntsuak ez direla konfinatu behar, horrek estres egoera eragiten duelako". Maskaren erabilerarekin ere ez dator bat besteak beste uste duelako ez dela egin kalitatezko lan zientifikorik maskaren erabilera birusa ez transmititzeko eraginkorra dela erakusten duenik eta maiz gaizki erabiltzen direla eta infekzioak sortu ditzaketela.

Txertoa ere izan zuen hizpide, bere esanetan ez baita beharrezkoa hartzea eta gainera, egileek ez dutela beren gain hartu txertoek eragin ditzaketen ondorioen erantzukizunik.

Azalpenak emateaz gain, hiru aholku nagusi eman zizkien Martinezek Maalan elkartutako entzuleei pandemiaren harira: norbere burua zaintzea, informatzea eta kontzientziatzea.

Etxez Etxeko Zerbitzua sustatzen jarraitzeko hitzarmena sinatu dute

Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua sustatzen jarraitzeko. Etxeko laguntza eta prebentzio zerbitzuan egiten duen inbertsioa % 250 handitu du Udalak. Mendekotasun-egoeran duden erabiltzaileei etxean egoten laguntzeko ematen duten diru kopurua 2017an 117.069 euro izatetik 2021ean 280.000 euro izatera pasatu da. Gipuzkoako Foru Aldunditik ere ekarpena nabarmen handitu da: 63.891 euro izan ziren 2017an eta 100.000 euro 2021ean. Bost urtetan, guztira 360 elgoibartar artatu dira, eta pixkanaka gora egin du kopuruak. 2021 urtea izan da etxeko laguntza gehien eman den urtea: 85 erabiltzaile. Emakumeak dira nagusiki laguntza jasotzen dutenak eta gehienak 80 urtetik gorakoak. Ane Beitia alkateak azpimarratu du oso garrantzitsua dela beren kabuz moldatu ezin diren pertsonen artea eta zaintza eskainiz etxeko laguntza zerbitzuan dihardutenek egunero egiten duten lana eta Elgoibarko Udalak garatzen dituen gizarte-politiken funtsezko ataletako bat dela zerbitzu hau.

Bi istripu izan dira asteon Urazandi kalean

Astelehen iluntzean auto istripua izan zen Urazandi kalean. Gidariak ibilgailuaren kontrola galdu, errepidetik irten eta espaloiak eta garaje bateko aldapak bat egiten duten lekuan katigatuta gelditu zen autoa, ez atzera ez aurrera. Martitzenean, iluntzeko istripua gertatu zen tokitik metro gutxira beste gidari bat ere errepidetik irten zen autoaren kontrola galduta. Errepidea eta oinezkoen eremua bereizteko erabiltzen diren metalezko zutoinak gaineratik pasa ostean, etxebizitza baten aurreko berdeguneko hesitura metalikoaren kontra jo zuen, baita bestaldean aparkatuta zegoen ibilgailua ere.



San Rokeko zubiaren lurra aldatzeko lanak hasi dituzte, eta datozen sei asteetan igogailua ez da erabilgarri egongo

Bernardo Ezenarro eta San Roke kaleak lotzen dituen igogailuaren gainaldean dagoen zubiaren egurrezko zoladura aldatzeko lanak hasi dituzte, eta eta lanok irauten duten bitartean igogailua ez da erabilgarri egongo. Noizean behin lanek trafikoan ere eragina izango dutela ohartarazi dute Udaletik, eta pazientzia edukitzeko eta arduraz jokatzeko eskatu diete herritarrei. Lanek sei aste inguruko iraupena izatea aurreikusi dute Elgoibarko Udaleko arduradunek. Udaletik ohartarazi dute, lan batzuk gabez egin beharko dituztela, hain zuen ere, trenak ez dabilzan orduetan. Pasabideko zoladuran mantentze lanak egiteaz gainera, irristakortasuna hobetzea da lanon helburu nagusia. Udalak hobetsi duen irtenbidea da gaur egungo egurrezko taulatuaren ordeztu altzairuzko xafla baten gainean hormigoizko zola bat jartzea. Bide batez, igogailuan ate berriak ipiniko dituzte. Inbertsioa 47.269,59 eurokoa (BEZik gabe), izango da.



Pasabideko zoladuran mantentze lanak egiteaz gainera, irristakortasuna hobetzea da lanon helburu nagusia. Udalak hobetsi duen irtenbidea da gaur egungo egurrezko taulatuaren ordeztu altzairuzko xafla baten gainean hormigoizko zola bat jartzea. Bide batez, igogailuan ate berriak ipiniko dituzte. Inbertsioa 47.269,59 eurokoa (BEZik gabe), izango da.

Epe baterako arkitekto teknikoaren lanpostua betetzeko deialdia egin du Mendaroko Udalak

Mendaroko Udalak bi eta sei hilabete arteko epealdirako arkitekto tekniko bat izendatzeko prozesua jarri du martxan. Administrazio bereziko lanpostua da, eta %85eko jarduna izango du. Hautagaiek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: Arkitektura tekniko, aparejadore, eraikuntza-ingeniari edo antzeko graduren bat izatea, euskararen ezagutza egiaztatzea; administrazioko zerbitzutik baztertu ez izana diziplina espediente bidez; eta ez egotea legezko ezintasun edo bateraezintasun egoeran. Oinarri guztiak www.lanbide.euskadi.eus atarian kontsultatu daitezke.

Elgoibarko Udalak martxan jarri du 2023ko egutegirako argazki lehiaketa

Urteroko egutegia osatzeko argazki lehiaketa egiten du Elgoibarko Udalak eta aurtengoa ere abian da. Librea izango da gaia, baina argazkia 2022an barrena Elgoibarren ateratakoa (adierazi egin beharko da zein leku den) izan behar da. Urriaren 6ra bitarteko epea egongo da lanak Aita Agirre kulturen CD batean edo euskara@elgoibar.eus helbide elektronikoa aurkezteko. Epaimahaiak 12 argazki aukeratuko ditu egutegi handirako, eta beste bat, egutegi txikian jartzeko. Irabazleek Txankakua Merkataritza Elkartearen dendetan gastatzeko 80 euroko bonua jasoko dute. Bakoitzak, gehienez, sei argazki aurkeztu ahal izango ditu; baina, pertsona bakoitzeko hiru argazki sarituko dituzte gehienez. Informazio gehiago Udal webgunean eskuratu ahal izango da.

Udalak diru-laguntzak emango dizkie UEUko udaberriko ikastaroetan parte hartzen duten elgoibartarrei

Elgoibarko Udalak diru-laguntzak emango dizkie Udako Euskal Unibertsitateak otsailetik apirilera bitartean Eibarren, Iruñean eta Gasteizen eskainiko dituen ikastaroak (presentzialak eta on-line) egiten dituzten herritarrei. Matrikulazioa zabalik dago. Izena emateko edo ikastaroei buruzko informazioa eskuratzeko www.ueu.eus webgunean sartu behar da. Udalaren dirulaguntzei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, Elgoibarko Udaleko Euskara Sailera jo daiteke (943 744 366 edo euskara@elgoibar.eus).

Hiru gaztetik bi emantzipatu gabe daude Elgoibarren

Elgoibarko Udalak 18 eta 34 urte bitarteko gazteen emantzipazio egoeraren diagnostikoa egin du. Txostena osatzeko, herrian erroldatu eta emantzipatu gabe dauden 310 gazte eta azken urteetan emantzipatutako 107 elkarrizketatu dituzte. Erroldaren arabera 1.680 elgoibartar daude 18 eta 34 urteko adin tartean eta inkestaren emaitzek jakinarazi dute emantzipatuak %32 direla; hau da, hiru gaztetik bi ez daudela emantzipatuta. Adinak ere badu zeresanik honetan, izan ere, 18 eta 23 urte bitarteko %4 dago emantzipatuta eta 24 eta 34 artekoetan %47. Horietan guztietan emakumezkoen emantzipazio tasa (%34,8) handiagoa da gizonezkoena (%29,6) baino.



Ane Beitiak diagnostikoaren aurkezpenean adierazi zuenez, emantzipazio plana begira egin dute azterketa eta egingo duten plana bera Udalaren apustu garbia da: "elgoibartarrek herrian bizitzeko eta beren bizi-proiektua hemen egiteko aukera izan dezaten nahi dugu, herriaren etorkizuna bermatzeko".

Maialen Gurrutxaga Gazteria zinegotziak hainbat azalpen eman zituen txosteneko datuen inguruan. Adinari erreparatuz adierazi zuen 18 eta 23 urte bitarteko gazteetan oso kopuru txikia dela emantzipatuena eta ikasketa prozesua luzatzeak eragina duela horretan. Bestalde, azpimarratu zuen emantzipatutako artean emakume kopurua dela handiagoa eta "kontuan hartuta askoren lan-egoera gizonezkoena baino txarragoa dela".

Elgoibarko etxebizitza merkatuaren egoera emantzipazio-prozesuen aldekoa dela esan zuen Gurrutxagak "baina hala ere ez da erraza, lana eta etxebizitzari dagokionez zailtasun asko dagoelako gazteetan". Hala ere, emantzipatu gabeen %24k (177) horretarako beharra adierazi du, baina horietatik 80k gaitasuna izan arren, ez dute jauzia eman. "Emantzipatzea pentsatzen dugunetik bi urte pasatzen dira batez beste hori egin arte". Gaineratu zuen 18-34 urte bitarteko gazteen gehiengoa azken bi urteetan emantzipatu dela.

Iosu Arraiz Hirigintza zinegotziak adierazi zuen azken urteotan gazte eta etxebizitzaren gaiak lantzen ari dela Udala. Besteak beste, etxebizitza hutsen diagnostikoa egin zuten 2017an. Gazteen emantzipazioa bultzatzeko Udalak dituen politikak ere ekarri zituen gogora, besteak beste, jakinaraziz azken bost urteotan 89 pertsonak jaso dituztela hilean 250 eurora arteko laguntzak Elgoibarren etxea alokatzeko. Horrez gain, datozen urteetan Elgoibarko eraikin eta etxebizitzak birgaitu eta merkaturatzeko asmoa ere badagoela esan zuen Arraizek. Horretarako Udalak 2022ko aurrekontuan aurreikusiak dituen 145.000 euroko diru-partida baliatuko ditu.

Diagnosia egin ostean Gazteen Emantzipaziorako Plana egingo du Udalak eta gazteekin elkarlanean jardutea da asmoetariko bat. Plana urte amaierarako prest egotea aurreikusi dute.

Txankakuako zozketako sari batzuk jaberik gabe

Txankakua merkatarien elkarteak Gabonetan zozketa egin zuen. Sari handienen jaberak agertu dira, baina 100 euroko hiru sarik ez dute jaberik. Hona hemen azaltzeko falta diren zenbaki sarituak eta ordezkakoak: 37428 (72574); 29143 (75128); 07621(40614). Otsailaren 7an bukatuko da epea eta zenbakia dutenek Txankakuako denda batera joan edo 943 747 301 zenbakira deitu behar dute.

Oñatiko Arrikruz kobara irteera, otsailaren 12an

Atxutxiamaikako Aldenik Alden egitasmoaren barruan, Oñatiko Arrikruz kobara irteera egingo dute otsailaren 12an, LH4 eta LH6 arteko umeek. 10:00etan irtengo dira Elgoibartik, eta 17:00etan itzuliko dira. Izena emateko elgoibarkoizarra.eus webgunean dagoen formularioa bete behar da otsailaren 7rako eta plaza mugatuak dira. Irteeraren prezioa 20 eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat, 18 euro). Irteera hau Udalaren babesarekin eta lankidetzarekin antolatuta dute.

Aparkaleku berriak Mendaroko geltoki ondoan

Mendaroko tren-geltokia berritzekohasi dituzten lanen harira, Udalak, inguru horretan, hogei aparkaleku berri sortu ditu: hamar tren geltoki parean eta beste hamar Gurelan Zaharrean. Udaletik zehaztu dutenez, helburua da obrek auzotarrengan eragin ditzaketan aparkaleku arazoak leuntzea.





▶ ALAIN ZULAIKA

NIALA MAGOA

Alain Zulaika (Elgoibar, 2000) umetatik hasi zen magiarekin jolasean. Betidanik izan du magian interesa eta 12 urte zituela, Oliver magoaren udalekuetan eman zuen izena. Handik itzuli zenean argi zeukan mago izan nahi zuela, eta magiaren munduan trebatzen hasi zen. Bilboko eskola batean aritu zen magia ikasketak egiten, eta bere kabuz ere, orduak eskaintzen dizkio magiari. Orain arte areto txikietan egin izan ditu ikuskizunak, baina gaurkoan, Herriko Antzokiko oholtzara igoko da. Urduri, baina ilusioz beterik dago, eta espero du gaurkoa ibilbide berri baten hasiera izatea. Bi urte pasa eman ditu gaurko emaldia prestatzen, eta bere onena emango du herritarren aurrean. 19:00etan hasiko da ikuskizuna. Argazkiak: Ekhi Lopez.

- AINHOA ANDONEGI -

“Nik trukoak egiten ditut baina ikusleak magia ikusten du”

◆ Noiz eta nola hasi zinen magiaren munduan barneratzen?

Umea nintzela *Magia Borrás* jolasa oparitu zidaten eta asko entretenitzen nintzen, baina beste ume askori gertatu bezala, aspertu nintzenean han geratu zen jolasa, bazter batean ahaztuta. 12 urte nituela hasi nintzen magia serioago hartzen. Udaleku bila nenbilen, eta Oliver Magoaren magia udalekua aurkitu nuen. Hamabost egunez egon nintzen han, eta etxera itzuli nintzenean argi neukan magoa izan nahi nuela. Oso ondo pasatu nuen: trukoak ikasten genituen, magoen ikuskizunak izaten genituen... Urte hartan nire kabuz ibili nintzen trukoak ikasten, eta hurrengo udan berri saiatu nintzen magia udalekuan izena ematen, baina bertan behera geratu zen. 14 urte egin nituen urteko udan joan nintzen berri, eta orduan lagun onak egin nituen. Lagunek esan zidaten Youtubeko bideoekin asko ikasten zutela, eta ni ere hortara jarri nintzen. Liburu eta bideoekin asko ikasi nuen. 14-15 urte nituela Bilboko *Fábrica de magos* eskolan eman nuen izena, eta 16 urtetik gorakoan mailan sartu ninduten, mailarik altuenean. Urte eta

erdi egin nuen han, eta hasieran oso galduta ibili nintzen arren, oso baliagarria izan zen niretzat. Taldea desegin zenean, nire kabuz jarraitu nuen ikasten. Orduak eta orduak eskaini dizkiot magiari, eta tarteka magia jardunaldietara ere joaten naiz. Gasteien egiten den *Magialdia* esaterako, pila bat gustatzen zait. Munduko magorik onenak etortzen dira, eta sekulako maila dauka. Hitzaldiak emateaz gain, beraiekin egoteko aukera izaten da, eta pila bat ikasten da.

◆ 12 urterekin mago izan nahi zenuela esan zenuenean, nola hartu zuten etxekoak?

Egia esan behar badut, etxean hasieratik eman didate babesa kontu honekin, eta ez daukat kezatzeko arrazoirik. Nik uste Bilboko eskola ere aitak aurkitu zuela, eta berak animatu ninduela izena ematera. DBHn nenbilen orduan, eta asteazkenetan joaten nintzen Bilbora. Eskolak oso berandu amaitzen ziren, eta aita etortzen zen nire bila, ez neukalako etxera itzultzeko trenik ordu hartan. Gainera, adin harekin kartak erosteko aukerarik ere ez

neukan, eta gurasoek erosten zidaten magia egiteko behar nuen materiala. Beraz, alde horretatik eskerrak ematea baino ez zait geratzen. Lagunen artean ere batzuk hasieratik animatu naute, baina beste batzuk uste zuten albora utziko nuen zaletasuna zela. Lagun batek galdetu zidan behin ia magoa izan nahi nuen eta baietz esan nionean argi eta garbi esan zidan, bere ustez, 16 urterekin lagako nuela. 21 ditut eta honekin jarraitzen dudala ikustean, barre egiten dugu.

♦ Gogoan daukazu jendaurrean eskaini zenuen lehenengo ikuskizuna?

Bai, 13-14 urte nituela egin nuen. Nire anaiaren urtebetetze ospakizunean izan zen. Tantaka tabernan egin zuen urtebetetze eguneko merienda lagunekin, eta han egin nuen magia ikuskizuna. Nire anaiaren lagunez gain, jende asko zegoen tabernan, eta azkenean han bildutako guztientzako ikuskizuna izan zen. Bigarren ikuskizuna nire anaiaren lagun baten jaunartze egunerako eskatu zidaten. Bazkalostean joan nintzen Debara, hango jatetxe batera, familiakoei magia egitera, eta ezin izan nintzen jende aurrera irten. Beldur eszenikoa daukat, oso urduri jartzen naiz ikuskizunen aurretik, eta ordu hartan ezin izan nuen beldur hori

“Mimo handiz prestatu dut Herriko Antzokian egiteko saioa”



gainditu. Umearen gurasoak nire gurasoen oso lagunak ziren, eta ulertu zuten guztia, eta gainera, eskatu zidaten beraien etxera joateko eta familiakoei egiteko magia. Han lortu nuen, baina jaunartze eguneko arantza hura sartuta daukat oraindik.

♦ Areto txikietan jardun zara gehienbat, baina gaur, Herriko Antzokiko oholtzara igoko zara.

Herriko festetan jende askoren aurrean aritu izan naiz, baina bai, nire ilusioa beti izan da areto handi batean aritzea. Mago askok mahai txiki batekin eta jende gutxiren aurrean gozatzen dute gehien, eta neuk ere gozatzen dut horrela, baina areto handi batean aritzeak ere ilusioa egiten dit. Elgoibarkoa izango da mota honetako lehenengo emanaldia, eta momentuz ez dut beste inorekin hitz egin, baina espero dut hau izatea etapa berri baten hasiera.

♦ Nola prestatu duzu gaurko saioa?

Prozesu luzea izan da, eta mimo handiz prestatu dut gaurko saioa. Aspalditik neukan buruan horrelako ikuskizun bat egiteko ideia, baina benetan honekin lanean orain dela bi urte eta erdi hasi nintzen. Une hartan *La magia del gui3n* liburua irakurtzen ari nintzen, eta horixe izan zen egin nuen lehenengo gauza; gidoia

idatzi. Ordura arte nire buruan izaten nuen beti gidoia, baina ez nuen sekula idazten. Bi urte eman nituen gidoia idazten, eta trukoak prestatzen, eta gutxi gorabehera gehiena lotuta nuenean Udalarekin hitz egin nuen, ikuskizunerako data jartzeko. Data jartzeak beste presio bat sortzen du, eta azken sei zortzi hilabeteetan egunero-egunero hutsik egin gabe eskaini diot denbora ikuskizunari. Ni oso metodikoa naiz, eta arte diziplina guztietan denbora eskaintzea klabea da. Picasso esaten zuen garrantzitsuena zela inspirazioa etortzen zenean lanean egotea, eta horretarako, orduak sartzeko garrantzitsua da. Lan handia egin dut, eta truko berezi bat ere sartu dut. Ikuslea ere konturatuko da truko berezia dela. Ez dakit nola funtzionatuko duen, ez dudalako sekula egin jende aurrean, baina uste dut ikusleak harritu egingo direla.

♦ Truko askotan publikoaren parte-hartzea bilatzen duzu. Nola erantzuten du jendeak horrelakoetan?

Umeen ikuskizunetan lehenengoa irtetea kostatzen da, baina behin bat etortzen denean, ondorengoetan denak egoten dira prest. Nagusien ikuskizunetan gehiago kostatzen da. Urte askotan magoak ikusleari barre egiten zion tonto paperean utziz laguntzera etortzen zen hori. Lehen ondo ikusita zegoen umore hori, baina orain inork

ez du hori nahi. Juan Tamariz eta Pepe Carroll magoak esaterako umore hori egitekoak ziren, eta arrakasta izan dute modu horretan, baina orain egoera aldatu egin da. Beraz, ikuslearentzat oparia izan behar da oholtzara igotzea, pribilejioren bat eskaini behar zaio, eta esan behar zaio gugandik gertu egonda gehiago gozatuko duela magiaz. Nik sinisten dut opari bat dela ikuslearentzat oholtzara igotzea, eta horrela saltzen dut. Magoentzat oso garrantzitsua da ikusleen parte-hartzea eta nik asko eskertzen dut. Gaur egun zuzenean seinalatzen dut ikusle bat eta igotzeko eskatzen diot. Aurpegian ikusten da nor dagoen gozatzen eta laguntzeko prest, eta hori aukeratzera joaten naiz.


◆ Noraino iritsi nahi zenuke magiarekin? posible da magiaz bizitzea?

Niri gustatuko litzaidake magiatik bizitzea. Nahiko nuke nire lana magia izatea, eta aparte, beste zaletasunen bat izatea, baina magia zaletasuna baino gehiago bizitzeko modua izatea nahiko nuke. Kirola da nire beste pasioa, eta une honetan kirol monitoria naiz, baina hori aldatzea nahi nuke. Kirola izatea zaletasuna eta magia ofizioa.

Nik uste dut posible dela magiatik bizitzea. Madrilen askoz aukera gehiago dago hemen baino. Madrilen magiari eskainitako aretoak daude, eta jendea magia ikustera joaten da. Hemen ez dago kultura hori hain zabalduta, baina badauzkat magiatik bizi diren lagunak, edo aukera izan dutenak behintzat magiatik bizitzeko. Nire ilusioa hori da.

◆ Magia existitzen da?

Mago bakoitzak bere modura erantzuten dio galdera honi, eta nik ere nire erara erantzungo dut: nik trukoak egiten ditut, baina ikusleak magia ikusten du. Orduan, ikusleak magia ikusten badu, niretzat magia existitzen da. Nik mago moduan ez dut salduko superboteak ditudala eta magia egiten dudala, horrek ez dauka zentzurik, eta hori gaur egun ez du inork sinisten. Baina ikusleak ez badu magoaren tranpa hori bilatzen, eta ikusi duenak ilusionatu badu, bere barruan magia egon da, segundu batez izan bada ere, eta hori niretzat magia da. Magoak, nolabait, adinekoak haurtzarora eramaten ditugu gure magiarekin. Umea beti dago gauza berriak deskubritzen eta gauza askorekin harritzen da, baina adinean aurrera joan ahala ia ezerk ez gaitu harritzen. Magoei esker ilusioa berreskuratzen dute askok, eta horrek haurtzarora itzultzearekin lotura dauka. Magia existitzeko, sekretua existitu behar da. Hau da, magoak ez dugu magia ikusten, badakigulako trukoak nola egiten diren, eta nire ustez trukoak ezaugarri gabe gehiago gozatzen da, baina badaude trukoak



“Magia, zaletasuna baino gehiago, bizitzeko modua izatea nahi nuke”

harrapatzen gozatzen duten ikusleak ere, eta hori ere errespetatu egin behar da.

◆ Zein mago dira zure erreferenteak?

Galdera honetan ez dut jakiten zer erantzun askotan. Juan Tamariz esatera ia derrigortuta nago, azken batean, Espainian onenarikoa izan delako. Magiari sekulako bultzada eman dio, berrikuntza asko sartu ditu eta asko idatzi du magiaz. Bilbora etortzekoa zen eta sarrerak erosita nituen, baina pandemiagatik bertan behera geratu zen ikuskizuna. Erretiroa hartu aurretik nahi nuke berriz ikustea. Arturo de Ascanio ere oso ona da. Ez da hain ezaugarri jendearen artean, baina magiaren teoriak gehien idatzi duena da. Eta horiez gain, nire lagunak ere erreferente dira niretzat: Haritz Petri eta Rubik magoa lagunak ditut, eta oso mago onak dira. Mario Lopez ere aipatu behar da, une honetan goia jotzen ari delako. Oso estilo berezia dauka, eta oso ona da. Espainian maila oso ona dago, eta esango nuke mundu mailan onenarikoa garelako. Ez gaude asko, baina gero eta gehiago gara eta guretzat garrantzitsua da magoen komunitatea sendotzea. Nik une honetan ez ditut kompetentzia moduan ikusten beste magoak, eta zenbat eta gehiago, guretzako onura dela esango nuke. Magiaren komunitatea oso sana da, eta Arturo De Ascaniok ere esan zuen behin ez duela ezaugarri pertsona txarra den magorik. Beti lagundu diogu elkarri, ematen eta jasotzen, eta balore horiek ez dira galtzen.

▶ IDOIA GURRUTXAGA

DONOSTIA OSPITALEKO ZUZENDARI MEDIKOA

Elgoibartarra da Donostia Ospitaleko zuzendari medikua: Idoia Gurrutxaga Arriola. COVID gaitza dela-eta ospitalean bizi dutena jakinarazi behar izan du maiz. Zuzentzen duen ospitalaren barrutik BARRENEN ere azaldu ditu pandemiak osasun zerbitzuetan izan dituen ondorioak, gaixoetan, langileetan zein zerbitzuetan, oro har, eta txertoei buruz ere aritu da. Bide batez ESiko profesionalen inplikazioa, konpromisoa eta lana nabarmendu eta euren profesionaltasuna azpimarratu nahi izan du.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



“Kritikoen unitatean ospitaleratutakoak bi heren txertatu gabe daude”

♦ **Azken asteotan zalantzak sortu dira ematen diren datuak egokiak ote diren. Nola ikusten duzu pandemiaren kudeaketa?**

Datuen analisia guztiz aldatu da azken bi asteetan, kontaktuen eta susmagarrien behaketa, jarraipena eta azterna lanak aldatu egin direlako. Aldaketak larrien daudenen eta arrisku gehien dutenen jarraipena ahalbidetu du, baina, oraingo datuen eta aurrez aztertzen genituenen arteko konparaketa zailagoa egin du. Honek kudeatzeko orduan datuen konfidantza murrizten du. Gu ospitalean ditugun datuen azterketetan eta langile kutsatuen datuetan oinarritzen ari gara, eta tendentzia poliki-poliki jaisten ari dela dirudi, baina ez nahi bezain azkar. Goi-lautada batean gaudela dirudi, oraindik ospitaleratze askorekin eta berriak gelditzeke.

♦ **Azken olatua ospitaleei dagokionez handienetakoa izan omen da. Zein da eragina?**

Gu oraindik ez gaude batere ondo. Seigarren olatu honetan, batez beste 150 COVID paziente izan ditugu ospitaleratuta, horietatik heren bat Zainketa Mediko Intentsiboetan. Lanari aurre egiteko, kritikoen 83 ohe ditugu prestatuak (47 egoera normalean), zainketa kritikoak eskatzen dituzten eta COVID ez diren patologiak artatzeko. Horretarako beste zeregin batzuetako giza baliabide eta egiturak erabili behar izan ditugu. Ospitaleetako okupazioa erabatekoa da; lehen olatuan ez bezala, beste osasun-arazo batzuk dituzten pazienteak iristen ari dira. Beraz, ohiko jarduerari COVIDarena gehitu behar zaio. Solairu guztiak irekita daude, eta eskari handiko egoeretan erabili ohi ditugunak ere. Gehigarri moduan esango dut gaur egun, COVID gaixo larri gehienak txertatu gabeko pazienteak, txertaketa-pauta osoa ez

dutenak, edo beste gaixotasun batzuen ondorioz sistema immunitario ahuldua dutenak direla. Baditugu txertatuta egonagatik larri dauden gaixoak –aurretik zituzten osasun-baldintzengatik–, baina gutxiengoa dira. Kritikoen unitatean ospitaleratutako pazienteen bi heren txertatu gabe daude. Ez dakit egoera zein litzatekeen txertorik izan ez bagenu.

♦ **Eguneroko lanean aldaketa nabarmenik izan da zuen ospitalean langilei, kontsultei, ebakuntzei dagokienez?**

Prozesu batean erabiltzen diren baliabideak beste bati kentzen zaizkio, mugatuak baitira. Azaroaren amaieratik, 39 lanaldi kirurgikoko eguneroko programazioak 19ra murriztu genituen, prozesu onkologiko, atzeraezin eta larrietako ebakuntzak bakarrik eginez. Ondorioz, itxaron-zerrenda kirurgikoko atzerapenek okerrera egin dute: azaroaren amaieran 49 eguneko zen eta gaur 73koa, itxaron zerrendako pazienteen igoera nabarmena izanik. Horiek dira ospitalean gehien sufritu duten prozesuak. Lehen mailako arretari dagokionez, COVIDarekin lotutako behaketek, jarraipenek, aztarnari-lanek, lanerako aldi baterako ezintasunek... gaitz gaina dezentea ekarri die profesionali, eta beste prozesu batzuetan zaildu egin du lehen mailako arretara iritsi ahal izatea. Ondorioz, jende gehiagok jo du ospitaleko larrialdi zerbitzuetara eta ospitalez kanpoko etengabeko arreta guneetara. COVIDaz bestelako patologiak dituzten pazienteen arreta kaltetu egin da. Horrez gainera minbizia duten hainbat gaixoren programatutako ebakuntzak, bertan behera utzi behar izan ditugu, COVID positiboa eman dutelako. Ebakuntza programatu bat bada, atzeratu egiten da –baita ebakuntza onkologikoa bada ere; izan ere, ebakuntza eginez gero, okertu egiten dira gaixotasuna zein ebakun-

tzaondoko prozesua. Ebakuntza ondoan, COVID positiboa eman eta sei edo zazpi aste bitartean, heriotza-tasa % 4 igotzen da; beraz, onena da ahal den guztietan ebakuntza atzeratzea sei edo zazpi aste horiek igaro arte.

♦ **Bada oraindik txertaketan inguruan zalantzak dituen jendea. Zein dira zalantza horiek? Txertoaren eraginkortasuna noiz da nabarmenagoa eta norentzat?**

Biztanleen % 10 txertatu gabe badago eta horiek badira intentsiboetan ospitaleratutako 2/3, horrek esan nahi du txertatu gabekoek intentsiboetan ospitaleratzeke duten arriskua 18 aldiz handiagoa dela. Zaila egiten zait ditugun datu eta informazioa kontuan izanda, txertoaren inguruko zalantzak ulertzea. Adierazle guztien arabera, txertoaren eragin onuragarria argia da. Intzidentzia-tasa hauek lehenago egon balira txertatu gabeko biztanleen artean, ondorioak erabilgaitzak izango ziren.

♦ **Ospitaleratutakoak eta ZIUetan ingresatuen gehiengoa oraindik txertoa hartu gabeak direla esaten da. Jendea txertoa hartzeko gomendioa egin behar zaiola uste duzu?**

ZIUan ospitaleratutako pazienteen 1/3 eskas dira txertatutakoak, gehienak immunodepresioa eragiten dien oinarriko patologia bat edo beste tratamendu bat dutenak. Txertoaren bi dosi estandarren ostean, denborarekin, eta batez ere adineko pazienteen artean, infekzioaren aurkako babesak eraginkortasuna galtzen du, eta askoz neurri txikiagoan galtzen da ospitaleratzearen aurkako babesaren eraginkortasuna. Hirugarren dosiaren eraginkortasuna aztertu duten ikerketek erakutsi dute bereziki ospitaleratzearen aurkako babesak berreskuratzen dela, baita infekzioaren aurkako ere (kasu horretan, neurri txikiagoan). Noski norbere erabakia da txertatzea edo ez txertatzea, baina nik justizia soziala eta laguntasuna eskatuko nituzke gutxien eta kaltetuen gertatzen diren pertsonen aurrean, hala nola immunologia ahulduta duten pertsonen aurrean, adineko jendea... Guk eskaintzen ditugun datuak dagoeneko ebidentzian oinarrituak dira eta ez gara sinesmen eta irudipenetan oinarritzen.

♦ **Gipuzkoan beste leku batzuetan baino eragin gogorragoa izan du Covidak azken aldirian. Arrazoi berezirik ba al dago?**

Txertaketa diferentzia lau puntu gutxiagokoa da, baina hau ezin daiteke arrazoi izan, aisialdia antzerakoa da hiru lurralde historikoetan, muga gertu daukagula diote batzuk eta horrek izan dezakeen eragina, ez dakigu zein den arrazoi ebidentzian oinarritua, lehenengo olatuan gure lurraldea izan zen gutxien sufritu zuena, baina azken bi olatuetan, batez ere seigarrenean okerren ibili gara Gipuzkoan. Hirugarren txertoarekin bai, argi ikusten ari gara Gipuzkoan askoz jende gutxiago txertatzen ari dela Bizkaia eta Arabarekin alderatuta. Ez dakigu kuxatu gehiago izan ditugunez, denbora pasa zain dauden edo eta ez dutelako jarri nahi, honek gehiago kezkatzen gaitu.

*“Lehen olatuan
Gipuzkoak sufritu
zuen gutxien;
azken bietan okerren
ibili gara”*

♦ **COVID eta gripea konparatu dituenik bada. COVIDari fase honetan endemia deitzeak gure nahiekin eta endemia terminoa gaizki ulertzearekin lotuago omen dago datu epidemiologikoekin baino. Zer diozu?**

Zuhurtziaz jokatu behar dugu, hau ez da gripe bat, nire ustez goizegi da horretarako. Gaur egun, biztanleriaren zati batek COVIDa patologia arin samar bat bezala bizi duen arren, biztanleriaren beste segmentu batzuek, hala nola txertatu gabekoek edo txertoari hain ondo erantzun ezin dioten gaixo immunodeprimetuek, koadro larriak bizi ditzakete. Gainera, adineko pazienteetan, behar bezala txertatuta egonik ere, haien oinarriko patologia desorekatu daiteke. Gaixotasunen Prebentzio eta Kontrolerako Europako Zentroak eta OMEk ere goizegi dela irizten diote. Posible da, biztanleriaren zati handi bat kutsatzen bada, azkenean endemiko bihurtu eta egoera horretara iristea, baina, gaur egun, niretzat behintzat goizegi da hori esateko.

♦ **Gaitzari errespetua galdu omen dio jende askok. Jendeak egunerokotasunean neurririk hartu ezean zuei nola eragiten dizue? Nola egin dakiokete aurre?**

Bi errealitateen aurrean bizi garela eta bizi izan garela argi dago: Osasun sailean ikusten duguna eta kalean behatua. Agian ez dugu ongi jakin gure errealitatearen gordintasuna azaltzen, gaixotasun honen heriotza kopuru bortitza, ZIUan egon ondoren, gaixotasuna gaingitu dutenen ezegonkortasun eta ondorengo bizitza kaskarra berriz dena errekueratu arte, hori lortzen bada... Nik berriz ere, elkarlana, auzolana eta besteenganak errespetua eskatuko nuke. Eta lehen esan bezala, COVIDaz bestelako patologiak dituzten pazienteen arreta kaltetu egin da.

♦ **Bertsio ofizialarekin bat datozen zientzialarietako zalantzak dituzte ziurtagiri digitalaren eraginkortasuna eta kalean maskara erabiltzearen derrigortasunaren inguruan. Zer uste duzu?**

Txertaketaren onura eta maskararen erabileraren onura ezin dira zalantzan jarri, neurri hauek ikerketa, saio kliniko eta argitalpenetan oinarrituta daude.

♦ **Hainbat sendagile txertaketan aurka agertu dira. Horren aurrean Osakidetza zer dio?**

Txertaketa borondatezkoa da, inor ezin daiteke derrigortu, baina nire ustez gure lanbideak eskatzen du zaindu behar ditugun gaixoenganako erantzukizuna.

♦ **Egoera honen aurrean lana utzi edo aldaketak egin dituen sanitarioek izan da zuenean?**

Batzuek bere gaixotasunengatik inmunitate ahultasuna izateagatik enpresako lan osasun zerbitzuak aldatu ditu lekuz. Bestalde, badaude COVIDaz arduratzen diren lanpostuetan jarraitu nahi ez duten profesionalak, zorionez oso neurri txikian.

♦ **Seigarren olatua azkena izango dela uste duzu?**

Hori espero eta nahi dugu, baina ez dut uste horren erraza izango denik. Zorionekoa litzateke.


Gero izango dittuk kontuak: Oñi, lanik ein be, gustora bizi haiz, eta hola ohittu haiz, baiña gero izango dittuk kontuak!

Etxegina taldeak santa eskea egin ez arren agerian jarriko du eskea eta Mendaron kale auzoetan ibiliko dira koplak kantuan

Otsailaren 4a da Santa Ageda bezpera eta egun horren bueltan egin ohi dute santa eskea Elgoibarren eta Mendaron. Pandemia dela eta, ordea, hainbat aldaketa izango dira aurten. Elgoibarko Izarrakoak ez dira baserri baserri kantuan irtengo eta Etxegina taldekoek ere ez dituzte kalean koplak abestuko. Etxeginakoek, baina, santa eskea gogoratzeko hainbat ekintza prestatu dituzte. Gaur bideo bat zabaldu dute eta bertan Ikastolako eta Herri Eskolako neska-mutilak azaltzen dira koplak kantatzen eta eskeari lotutako hainbat argazki ere bildu dituzte. Horrez gain, Karkizano dendako eskaparatea atondu dute santa eskeko hainbat osagairekin: German Uriguen zenaren makila, Baltasar elkarreak utzitako argazkia eta taldeari egindako hainbat opari, besteak beste, zapiak, abarkak, blusa...

Mendaron, berriz, bihar, otsailak 5, Santa Ageda egunez aterako dira kantuan herritarrak. Santa eskean baserrietan ibili izan badira ere, pandemia dela-eta aurten kaleko hiru auzotan arituko dira, 10:00etan Udaletxeko plazatik abiatu eta 14:00ak ingurura arte. Beñat Lizaso eta Aitzol Urain jardungo dira koplari trikitalariak lagun dirrela. Kalerik kale eskea egingo badute ere ez dira portaletan sartuko eta eske ostean mokadu eta bazkaririk ere ez dute egingo.

Hortaz, batean eta bestean modua aldatu arren, santa eskea gogoan izango dute egunotan. Elgoibarko eta Mendaroko ikastetxeetan ere koplak kanturik ez da faltako gaur, Santa Ageda bezperan.



Aurreku Txapelketa hasi dute Elgoibarko dantzariak

Joan den zapatuan hasi zuten Legazpiko Latxartegi aretoan, Aurreku Txapelketako liga, eta Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako Maialen Pizarro, Uxue Cabrera, Duna Santos, Elaia Etxaniz eta Irene Toledano dantzariak bertan hartu zuten parte. Ligako lehen txapelketa izanik urduri aritu arren ondo bete zuten lana. Beste lau kanporaketa jokatu dituzte, horietako bat Elgoibarren, martxoaren 13an; finalak, berriz, maiatzean izango dira. Irailean eta azaroan nagusien liga jokatu dute 15 urtetik gorakoek



825 lagunek hartu dute parte Mendaroko Ipuin Lehiaketan

Pasa den barikuan jakinarazi zituzten Mendaroko Euskarazko Ipuin Lehiaketako irabazleak. LH1, LH2, LH3 eta LH4 mailetako irabazlea Elgoibarko Ikastolako Nahia Malvar Ibañez izan da; LH5, LH6, DBH1 eta DBH2 mailetakoa Mendata ikastetxeko Nagore Arakistain; eta DBH3 eta DBH4 mailetakoa Elgoibarko Institutuko Marina Archeli. Irabazleek tablet bana jaso zuten, eta gainerako parte hartzaileek, guztira 825, orogari bana jasoko dute datozen egunetan, bakoitzak bere ikastetxean.





▶ ZUHAITZ GURRUTXAGA

AKTORE ETA TELEBISTA AURKEZLEA

Zuhaitz Gurrutxagak Iker Galartzarekin batera 'Lehendakari gaia' antzezlanaren taularatuko du otsailaren 11n Herriko Antzokian. Umorea oinarri duen obran lehendakari gai batekin berriketaldia izango duen psikiatraren papera antzeztuko du elgoibartarrak eta herritarrak barrezka jartzea da bere asmoa.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

“Lehendakari gaia ez dago pertsona konkretu batean inspiratuta”

♦ 'Lehendakari gaia' antzezlanaren egingo duzue Elgoibarren. Zein da obraren oinarria?

Lehendakari izendatu berria da Iker Galartza eta lehen inbestidura hitzaldia eman behar duen goizean, urduritasunak eraginda-edo urduritasunetik bat sortuko zaio aurpegian eta psikiatra bati deituko diote tik hori kentzeko. Psikiatra hori ni izango naiz eta elkarrizketa dibertigarri bat sortuko da bion artean. Elkarrizketa horrek erakutsi nahi du pertsona horren lehendakari gai izateko arrazoia motibazioa ala maitasun falta izan den.

♦ Psikiatraren papera beteko duzu. Orain arteko emanaldietan nola ikusi duzu zure burua paper horretan?

Nik psikiatrak ez, baina psikologoak ezagutu izan ditut pazientearen aldetik eta terapia saioetan izan ditudan psikologoak serioak izan dira nirekin. Hortaz, hasieran, entseguetan, modu errealistegian antzeztu nuen nire pertsonaia, ahaztuta antzerkia zela eta gainera, komedia. Gero moldatzen joan naiz psikiatra xelebreago bat bilatuz, jendeak barre egin dezan eta pertsonaia konplexuagoa sortuz. Hamar bat emanaldi egin ditugu eta emaitza polita izaten ari da jendeak barre egiten duelako psikiatrarekin eta are gehiago Iker Galartzaren lehendakariarekin.

♦ 'Lehendakari gaia' izenburuarekin jendeak pentsa dezake izatera politikodun antzezlanaren dela. Hala al da?

Ez, aitzaki bat da kargu garrantzitsu bat duen pertsona baten atzeko aldea erakusteko. lehendakari, enpresaburu zein futbol entrenatzaile izan zitekeen. Jendaurrean irudi gogorra azaltzen dute eta guk jendea irudiarazten diogu zein ahuldade izan ditzaketen, zerekin sufritu dezaketen edo zerk kentzen dien loa horrelako kargu baten dagoen norbaiti.

♦ Lehendakaria bera izan da inspirazio iturri?

Antzezlanaren autore kataluniar batek idatzia da eta han kokatua dago. Ez dut uste inor imitatu zuenik. Gurean euskaratu egin dugu eta hainbat txiste egokitu hemen hobeto funtzionatuko dutelakoan. Baina ez dago pertsona konkretu batean inspiratuta.

♦ Lehendakariaren eta psikiatraren elkarrizketa nolako da?

Psikiatrak normalean galdera motzak egiten ditu erantzun luzeak jaso nahian. Beraz, nik tentatu, gidatu egiten dut Iker Galartzaren pertsonaia eta berak dauka pisu handiena. Futbolarekin parekatuko bagenu nik erdiraketak egiten ditut, berak errematatu eta golak sartu ditzan.

♦ Gola, beraz, barrea eragitea izango litzateke?

Hori da, ateraldiek funtzionatzea eta jendeak barre egitea. Orain arte egin ditugun emanaldietan aldeko gol asko egon dira.

♦ Aurrez Elgoibarren antzeztutakoa zara. Nola sentitzen zara herritarren aurrean?

Egin ditudan emanaldi potenteenak, energiari dagokionez, Elgoibarren izan dira beti. Benetan da berezia, jende ezaguna dago eta ondo egiteko gogoia; eta oholta gainean horrelako presio bat sentitzen dudanean, zorionez, onerako izaten da.

♦ Herritarrak nola animatuko zenituzke 'Lehendakari gaia' ikustera?

Elgoibarren jende asko etorri izan da eta babes handia eta txalo eta barre asko jaso ditut. Aurreko emanaldietan jendeak uste baino barre gehiago egin du eta Elgoibarren ere barrea eragiten saiatuko gara. Komedia egitera joan eta Iker Galartza ondoan izatea garantia bat da. Elgoibarren joateko aukerarik ezean inguruan beste nonbait ere ikusi ahal izango dute.

Partida ikusgarria jokatuta, hiruna berdindu zuten Haundik eta Touring-ek

Lehenengo eta bigarren sailkatuek elkarren aurka jokatzean pentsa zitekeen partida jokatu zuten Haundik eta Errenteriako Touring taldeek, joan den zapatuan, Mintxetan. Norgehiagoka ikusgarria izan zen. Haundik hartu zuen aurrea markagailuan, neurketako lehen minutuetan Arriolak sartu zuen golari esker. Errenteriarrek berdinketaren bila jo zuten, eta behin eta berriro saiatu ziren erasoan, harik eta saria lortu zuten arte: berdinketaren gola. Touring-ek lehen zatia amaitzeko bost minuturen faltan lortu zuen markagailuan aurrea hartzea, eta Ligako lehen postuan zerbaitegatik daudela erakutsi zuten errenteriarrek: nabarmen nagusitu ziren baloiaren jabetzan, eta Haundik baino gol aukera gehiago sortu zituzten. Futbolak, baina, eraginkortasuna saritzen du, eta Haundik gol bihurtu zituen aukera argi apurrak. Halaxe izan zen bigarren zatiaeren hasieran, korner bat errematatu ostean ailegatu baitzen berdinketaren gola. Hortik aurrera, berriro ere partidaren agintea hartu zuen Touring-ek eta alde izan zituzten korner ugarietako batean gol ikusgarria sartu zuten, buruz errematatuta. Haundik ez zuen etsi, ordea, eta kontraeraso azkar batean lortu zuen hironako berdinketa, 75. minutuan. Azken minutuetan



emozinoa izan zen nagusi, ikusiak ikusi, edozeinek sartu baitzezakeen garaipenaren gola, baina ez zen gol gehiago izan, eta puntu banaketarekin amaitu zen partida. Jardunaldi berean, Eibarrek 0 eta 2 irabazi zion Oiartzuni eta hiru puntu horiekin aurrea hartu dio sailkapenean Haundiri. Orain hirugarren postuan dago C.D. Elgoibarreko talde nagusia, 36 punturekin. Eibarrek 38 puntu ditu eta 40 Touring-ek. Haundik Urolaren aurka jokatuko du 20. jardunaldiko neurketa, bihar, Zumarragan.

Esku Pilota Eguna Mendaron, otsailaren 18an

Otsailaren 18rako Esku Pilota Eguna antolatu du Arno Guraso Elkar-teak, Lehen Hezkuntzako eskola umeei kirol desberdinak probatzeko aukera emateko asmoarekin. Mendaroko MTE pilota eskolako Haitzart Iraolagoitia eta



Naiara Arrillagaren laguntzarekin antolatu dute ekimena. Horiek esku pilotaren inguruko oinarritzko jakingarriak emango dizkiete, eta pilotan aritzeko aukera izango dute umeei. Izena ematen dutenen arabera antolatuko dituzte saioak. Izena emateko otsailaren 16ra arteko epea dago. Horretarako, arnokirolak@gmail.com helbidera idatzi behar da mezua, ikaslearen izen-abizenak eta zein mailatan ikasten ari den zehaztuta.

Mendi irteera eta sagardotegian bazkaria

Morkaiko eta Eibarko Klub Deportibo mendi taldeek mendi irteera eta sagardotegia uztartuko dituen irteera antolatu dute otsailaren 19rako. Autobusa 8:00etan irtengo da Eibartik, Ego Gaietik, eta 8:15ean elgoibartarrak jasoko ditu, King-Kongeko autobus geltokian. Brinkolaraino joango dira autobusez, eta handik Arranoaitz (875 m.) eta Elortxiki (865 m.) mendietara igoko dira, ibilbidea Zerainen amaitzeko. Han bertan bazkalduko dute, Oiharte Sagardotegian. Irteera honetan parte hartu nahi dutenek 50 euro ordaindu beharko dituzte, garraioagatik eta bazkariagatik Bi era daude izena emateko: online edo aurrez aurre, Morkaikok Errosario kalean duen egoitzan (eguztinetan, 19:00-20:15).

Mugertza krosari buruzko marrazki lehiaketak baditu irabazleak



Aurreko barikuan, urtarrilaren 27an, egin zuten Mugertza krosari buruzko marrazki lehiaketaren sari banaketa ekitaldia, Elgoibarko Udal Ludotekan. Aurten 52 marrazki aurkeztu dituzte lehiaketara (350 umek hartu zuten parte aurreko edizioan). Hona hemen maila bakoitzean saria jaso dutenak: Luma Etxaniz Bereziartua (LH-1), Martin Muxika Cid (LH-2), Oihane Meabebasterretxea Sanz (LH-3), Intza Rubio Agirre (LH-4), Unax Ansola Arrieta (LH-5) eta June Arriaga Mujika (LH-6). Irabazle bakoitzak herriko saltokietan erosketak egiteko 50 euroko erosketa bale bat jaso zuen saritzat. Epaimahaia Gazteria zinegotziak, Mintxeta Atletismo taldeko kide batek, Udaleko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko teknikariak, Ludotekako hezitzaile batek eta marrazketan aditu batek osatu dute.

2022rako kirol ikastaroen eskaintzaren berri eman du Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak

Ikastaro eskaintza zabalarekin hasi du urtea Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Esaterako, uretako bederatzita jardura prestatu dituzte Olaizaga kiroldegian dauden hiru igerilekuetan egitekoak. Patronatutik jakinarazi dutenez, uretan egiten diren kirol jardura horietan, hileroko 370 ikaslek hartzen dute parte. Aretoko beste hamahiru jarduerak osatzen dute Patronatuaren eskaintza, eta horietan beste 300 lagun ari dira parte hartzen. Otsailetik aurrera gainera, Pilates ikastaroen ordutegia zabalduko dute eta, astelehenetan eta asteazkenetan ere emango dute,



10:10ean. Era berean, igerian hasiberriak diren helduentzako igeriketa ikastaroak ere emango dituzte, astelehenetan eta asteazkenetan, 16:30ean. Patronatuak eskaintzen dituen ikastarotan parte hartzea nahi dutenek Olaizaga kiroldegian jaso dezakete informazio osoagoa, baita 943 744 415 telefono zenbakira deituta ere, edota olaizagaharrera@hotmail.es helbide elektronikora idatzita.

Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 3 – Touring 3 (Oho. erreg.)
 Elgoibar 2 – Mundarro 0 (Emakumeak, nag.)
 San Marcial 0 – Elgoibar 6 (Erreg.)
 Elgoibar 1 – Amaikak Bat 1 (Oho. maila jub.)
 Elgoibar 3 – Internacional 2 (1. mailako jub.)
 Anaitasuna 3 – Elgoibar 1 (Oho. kad.)
 Aloña Mendi 6 – Elgoibar 2 (Kad. 1. maila)
 Ilintxa 1 – Elgoibar 1 (Kad. neskek)
 Lagun Onak 0 – Elgoibar 0 (Infantil Txiki)
 Elgoibar infantil txuria 2 – Antzuola 6 (Inf.)
 Bergara 9 – Elgoibar infantil berdea 0 (Inf.)

SASKIBALOAIA

Andraitx K.E. 41 – Modelos Modelberri Elg. 71

ESKUBALOAIA

Arrate 18 – Dario Bus 22 (Inf. neska.)
 Zubacor Elg. 16 – Pulpo 27 (Inf. mut.)
 Tecnifuelle 29 – Aiala Zarautz 25 (Inf. neska.)
 Neurri Elg. 31 – Unrieta 12 (Kad. neska.)
 Bergara 18 – Astigarraga GYS Sport 15 (Kad. neska.)
 Ereintza 29 – Urkunde 21 (Kad. mut.)
 Berango 24 – Salento Gelati 38 (Kad. neska.)
 Bankoa Elg. 26 – Leizaran 25 (Jub. neska.)
 Urola 31 – Pizzeria Salento 30 (Senior giz.)
 Lagunak 26 – Gaurve Asesores 26 (Senior emak.)
 Deca 32 – Bidasoa Irun 25 (Jub. mut.)
 Leizaran 15 – Astigarraga GYS 17 (Kad. neska.)
 Aloña Mendi 10 – Dario Bus 24 (Inf. neska.)
 Zuazo 27 – CIMDE Elg. 20 (Jub. neska.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 5
 10:00 Elgoibar – Urki (Infantil Txiki)
 12:00 Elgoibar – Ikasberri (1. mailako kad.)
 16:00 Elgoibar – Vasconia (Erreg.)
 18:00 Elgoibar – Lagun Onak (Oho. kad.)

Domeka, 6
 10:00 Elgoibar – Mutriku (Aleb. hobekuntza)
 12:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Inf. berdea)
 15:30 Elgoibar – Arizmendi (Kad. neska.)
 17:30 Elgoibar – Real Sociedad (Emak. nag.)

ESKUBALOAIA (Olaizaga Kiroldegian)
 Zapatua, 4
 10:00 Urkunde – Legazpi (Kad. mut.)
 11:30 Deuko Izarra – Ordizia (Jub. mut.)
 13:00 Arilan Elg. – Egia (Senior emak.)
 17:30 Neurri – Arrasate (Kad. neska.)
 19:30 Gaurve Asesores – Schar Colores Zaragoza

Domeka, 5
 10:00 Salento Gelati – Kukullaga (Kad. neska.)

ESKUBALOAIA (IMH Kiroldegian)
 Domeka, 5
 10:00 Sanlo – Zarautz (Aleb. neska.)
 10:00 Sanlo – Urola (Benj. mixtoa)
 10:40 Sanlo – Zarautz (Benj. mixtoa)
 11:00 Sanlo – Legazpi (Aleb. neska.)

LANA.....**Eskaerak**

Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat. ☎ 653 407 897

Adinekoak zaintzeko eta sukaldari edo garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 643 071 900

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat. ☎ 642 196 564

Adineko pertsonak ospitalean edo etxean zaintzeko profesionaltasun-ziurtagiria duen laguntzailea, lanerako prest. Esperientzia. Elgoibartarra naiz. ☎ 660 511 781

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Orduka, etxeko langile moduan, asteburuetan... ☎ 632 589 202

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. ☎ 641 341 896

LHko eta DBHko eskolak emateko prest nago. Arratsalde. ☎ 649 446 529

Umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. ☎ 612 202 116

Garbiketa lanak egiteko eta adinekoak zaintzeko prest nago. ☎ 642 716 984

Garbiketa lanetarako edo adinekoen zein umeen zaintzan lan egiteko prest nago. ☎ 691 313 505

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. ☎ 631 229 408

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Orduka. Asteburuetan ere bai. Malgutasuna daukat. ☎ 667 228 395

Eskaintza

Aste barruan umeak goizean, eguerdian eta arratsaldean ikastolara eraman eta handik etxera ekartzeko pertsona bat behar dugu. ☎ 628 115 677

BPXport enpresak Olaizaga kiroldegiko eta Mintxeta kirolguneko harreran lan egiteko pertsona behar du. Administrazioan eskarmentua izatea eta euskaraz jakitea eskatzen da. CV elgoibar@bpxport.es helbidera bidali behar da.

GARAJEAK.....

104m²-ko garaje itxia alokatzen dut, Olaizaga inguruan. Autokarabana gordetzeko eta pintore edo igeltseroentzako aproposa. ☎ 679 306 223

ETXEBIZITZAK.....

70 m²ko Babes Ofizialeko etxea salgai Gabriel Kurutzelaegin. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta balkoia barrikaldera. Garajea eta trasteroarekin. Mugitzeko desgaitasuna duten pertsonentzat egokitua. ☎ 688 724 122

Etxea hartuko nuke alokairuan. Luzerako alokairua izango da. ☎ 643 654 881

BESTELAKOAK.....

Hilaren 29an Karakateko aparkalekuan ume baten bizikleta kaskoa topatu genuen. ☎ 639 671 419

Urtarrilaren 22an lora galdu zen Urazandi auzoan. Yaco buztan gorri arrazakoa da.

☎ 680 704 396
619 815 403



Orbea Loopy umeentzako bizikleta salgai. 8-12 urtekoentzat, 24". Egoera onean. 60 euro. ☎ 600 798 602



administradores Consejo Asesor de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoako Finantza Administrazioaren Lanerako Kontseilua



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Nire jabeakideen komunitatean berogailu zentrala dago eta solairu arteko gune bat ere badago merkataritzarako erabiltzen dena. Hor sekula ez dute berogailurik izan hasieran eraikina horrela itxuratu zutelako. Eraikinaren dokumentazioak dio etorkizunean zerbitzu hori jaso nahi izanez gero, eskubidea dutela horretarako eta nola ordaindu ere adierazten du. Azken bileran solairu artekoak esan zuen berogailu zentrala jarri nahi duela. Jakin nahi nuke solairu arteko jabeak urteotan galdararen mantenuan sortutako gastuak zein orain dela hiru urte jarritako galdara berria ordaindu beharko dituen.

Nire ustez, energia horniduraren instalazio berriei buruz legeak diona hartu beharko litzateke kontuan. Legearen arabera, gerora telekomunikazio edo energia horniduraren sartzeari eskatuz gero eta horretarako azpiegitura berriak edo aurrez jarritakoetan egindako egokitzapenak baliatu behar badira, baimena eman ahal izango zaie, beti ere dagokien kopurua ordainduz gero eta modu egokian eguneratuta legeko interesak gehituz. Legeak ez du aurrekoen mantenu eta zaintza gastuei buruzko ezer jasotzen zerbitzu hortaz baliatzen ari direnen beharretarako baitira. Beraz, gastuak ez dute eraginik izango instalazio honen erabileraarekin bat egin berri duen jabearengan.


Aholkua: Nire iritziz, solairu arteko jabeak legeak ezarritako estatutu baimena erabili ahal izango du. Baina galdara berriaren kostua ordaindu beharko du dagokien proportzioa kontutan hartuz eta azken hiru urteetako (jarri zutenetik) urteroko legezko interesa gehituz. Baina ez ditu aurreko urteetako mantenu eta zaintza gastuak ordaindu beharko.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 📞 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Mikel**, familia guztiaren eta, bereziki, Luke-nen partez.



Zorionak, **Jare!** Asteartean 10 urte! Neska handi! Patxo handi bat etxe-koen, eta batez ere, neba Aratz eta Ibai eta Lier lehengusuen partez.



Zorionak, **Idoia**, atzo 2 urte bete zenituelako. Patxo handi bat familiako guztion, eta bereziki, Igor, Mikel eta Nerearen partez.



Zorionak, **prinzesa**, 3 urtetxo bete dituzulako! Muxu potolo bat etxe-ko guztien partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

BARREneko harpidedunentzako oharra

Buzoiko **B pegatina** falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



EXPRESS ESKAINTZAK!

SAMSUNG DW60M6040FS/EC ONTZI-GARBIGAILUA

469 €



- 13 zerbitzu.
- 6 programa.
- Aqua stop sistema.
- Maxi Display led.
- Hatz arrastoen aurkako Inox.



MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

4 BARIKUA

19:00 Magia ikuskizuna: Niala magoa. Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: www.herrikoantzokia.eus

19:00 Bideo foruma: *La clienta*. Loredi Salegik gidatuko du. Haizeak antolatuta, Lilan.

5 ZAPATUA

10:00 Santa eskea, Mendaron. Herriko enparantzan bilduko dira.

11 BARIKUA

19:00 Antzerkia: *Lehendakari gaia*. Herriko Antzokian. Sarrerak erosteko: www.herrikoantzokia.eus

Zinea (Herriko Antzokian)



'Delicioso'

4 barikua: 21:00

5 zapatua: 19:00 / 22:15

6 domeka: 19:00

7 astelehena: 21:00

'Canta 2'

6 domeka: 16:30

'Seis días corrientes'

9 eguaztena: 21:00

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

'GOTIKOAREN ALTXORRA'

BISITA GIDATUA, DEBAN. OTSAILAK 13, 12:00ETAN

Debako Santa Maria eliza ezagutzeko bisita.

- Prezioa: 8 euro (12 urtetik beherakoentzat: 5 euro)
- Irteera puntua: Debako turismobulegoa (Iifar kalea 4)
- Iraupena: Ordu eta erdi
- Informazio gehiagorako eta erreserbak egiteko: www.geoparkea.eus

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

4 BARIKUA	5 ZAPATUA	6 DOMEKA	7 ASTELEHENA	8 MARTITZENA	9 EGUAZTENA	10 EGUENA	11 BARIKUA
Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez
Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Esther Mendinueta Berastegui.
Urkizu pasealekua, 6 (Eibar)
943 820 106



Merkealdia!

%25

- ★ Neguko izaretan
- ★ Sherpa edredoietan
- ★ Manta guztietan



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Asier
Cortazar
Montes.
4 urte,
Elgoibar

"Ortzadarra"



Udane
Gil
Agirre.
5 urte
Elgoibar

"Etxe polita"





1976

Aste honetako erretratu zaharra Bea Ansolak bidali digu. Ikastolako gela batekoa da, 3 urteko umeen gelakoa, hain zuzen ere. 1962an 29 umez osatutako talde batekin ekin zion Loritoneko lokalean Elgoibarko ikastolak, Itziar Ajuria irakasle zela. 1970. urtetik aurrera Ikastola *Catequesis parroquial* izango zen (eskolaurrea) eta *Escuela Parroquial de San Bartolome* sei urtetik gorako ikastola. Ikasle kopurua gero eta handiagoa zenez, lokal berriak ireki behar izan zituzten umeentzat: Goitin (San Frantzisko kalean), Plaza Txikian (Aita Agirre kulturunea dagoen tokian) eta Ubitarten, parke beltzaren azpikaldean. 1976. urtean Maalako parkean, monjen eskolan, haurtzaindegia ireki zuten, eta 1977ko ekainean ikastola berria inauguratu zuten. Argazki hau, hain justu ere, Parke Beltzean aterata dago. Urte hartan Arantza Endeiza, Edurne Lasa eta Rita Zabala izan zituzten andereño.

Goian: Susana Armendariz, ezezaguna, Jone Zubiaurre, Iratxe Iriondo, Unai Arrizabalaga (†), Alberto Garate. **Behean:** Nerea Osoro, Gorka Mujika, ezezaguna, Maria Urizar, Bea Ansola, Joana Sarriguarte, Maite Iriondo eta Lorea Iriondo.



Erretratu zaharrak behar ditugu

Atal honetan argitaratzeko moduko argazkirik baldin badaukazu, bi aukera dituzu guri helarazteko:

e-posta:

barren@elgoibarkoizarra.eus

Barreneko bulegora ekarri:

Aita Agirre Kulturunea, 3. 3. ezk.





I. URTEURRENA

Patxi Zabala Gandiaga

2021eko otsailaren 1ean hil zen, 66 urte zituela.

*Zeruko izarren artean aurkitu duzu tokia,
lurrean utzi dituzun izarrei emateko argia.
Zure indarrak emango digu benetako bizia,
egunsentiarekin batera jarraitzeko bidia.*

Etxekoak



VIII. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,
ez zaitugu inoiz galduko
gure bihotz barreanean
eramango zaitugu betiko.*

Etxekoak



VIII. URTEURRENA

Idoia Laka Lizaso

2014ko otsailaren 3an hil zen, 38 urte zituela.

*Urruti gaudenean,
lagunak bihotzean eramanaz bidea errazago egiten da.
Ido, egiten duguna egiten dugula
beti zaude gurekin.*

Maite zaitugu

Azkoitiko eta Elgoibarko lagunak





NEREA IRAOLA URBIETA (Elgoibar, 20 urte).
Industria Elektronikako Ingeniaritza graduako 3. maila
ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

“Ikaslea ikertzaile bilakatzen da”

■ **Definitu apur bat zure burua. Non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu zaletasunik?**

Elgoibarren egin nituen ikasketak, lehendabizi Elgoibarko Ikastolan eta ondoren IES Elgoibar BHI ikastetxean. DBHko laugarren mailatik argi neukan zientifiko-teknologiko modalitateko batxilergoa egingo nuela, matematikak gustuko nituelako. Denbora librean, kirola egitea gustatzen zait, baita musika entzutea ere.

■ **Zergatik aukeratu zenuen Industria Elektronikako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?**

Ate irekien egunean, Ingeniaritza Elektronikako gradua ikustera etorri nintzen. Bertan gradu bakoitzeko ikasleak zeuden beraien bizipenak azaltzen, proiektuak erakusten etab. Proiektu horietako bat izugarri gustatu zitzaidan, audio anplifikadorearena zehazki. Gainera, Mondragon Unibertsitateak eredu duala eskaintzen zuela ikustean, are eta argiago geratu zitzaidan hemen ikasi nahi nuela.

■ **Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?**

Era oso positiboan. Hasieran, dena oso desberdina izan arren, denbora pasa ahala, kurtsoari erritmoa hartu diot.

■ **Nola definituko zenuke Goi Eskolan jasotzen duzun ikasteko metodologia?**

Berritzailea da. Eskola teorikoak jasotzeaz gain, seihileko bakoitzaren amaieran proiektu praktikoa egiten dugu, PBL izenez ezagutzen dena. Bertan, seihileko bakoitzean ikasitakoa praktikan jartzen dugu baita, ikaslearen irudimena, sormena etab. Beste hitz batzuetan, ikaslea ikertzaile bilakatzen da eta erronka

ebazteko beharrezkoak diren kontzeptuak ikasten dira.

■ **Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta ba al dago zerbait hobetzeko?**

Gehien gustatzen zaidana, irakasle-ikasle arteko harremana da, edozein zalantzaren edo arazoren aurrean laguntzeko prest egoten baitira. Horrez gain, gaur egungo egoera dela eta, eskolak etxetik jarraitzeko baliabide guztiak eskaintzen dizkigute eta hori ere eskertzekoa da.

■ **Lanean ari zara ikasten duzun bitartean, eredu dualan. Non ari zara jardunean eta zein lan mota egiten duzun?**

Orona enpresarentzat egiten dut lan. Enpresa honek erabiltzen dituen motorren diseinuan eguneraketa batzuk egiten ari naiz. Horretarako, diseinu elektronikorako programen inguruko ezagutzak jasotzen ari naiz, ondoren zirkuitu inprimatu baten diseinua egiteko. Ondorengo hilabeteetan, igo-gailuko motorren zein ateen entseguak egingo ditut berriz.

■ **Zer nolako ekarpena egiten dizu eredu dualak?**

Hezkuntza duala aukera paregabea da, lan munduko errealitatea gertutasunez bizitzeko aukera ematen duelako. Era berean, denbora hobeto kudeatzen ikasten da, eskolako bost orduz gain beste lau orduz lana egin behar delako.

■ **Etorkizunerako zeintzuk dira zure asmoak?**

Gradua amaitzerakoan ikasten jarraitzeko asmoa daukat. Ikasketa hauek, eredu dualarekin partekatzea gustatuko litzaidake. Horrez gain, ingelesa hobetzea ere nahi nuke, lan munduan erraztasun gehiago izateko.

“Hezkuntza dualak lan munduko errealitatea gertutasunez bizitzeko aukera ematen du”